XI.KILIMON TRAIL MOTZA-ARAUDIA

1.- DATA ETA LEKUA

XI.Kilimon Trail Mendi Lasterketa Motza, 2023ko Apirilaren 1an, arratsaldeko 16:00etan izango da. Irteera eta amaiera puntuak Mendaroko Goñati pilotalekutik izango dira.

2.- IBILBIDEA

Kilimon bailarari buelta ematen zaio, 11km.-ko ibilbidea duelarik. 600m-ko garaiera positiboa du.

3.- MAILAK

15 urtetik gorako lasterkariek parte har dezakete soilik. Hiru maila izango dira:

Kadeteak: 15 eta 16 urte (2007-2008)

Juniorrak: 17 eta 18 urte (2006-2005)

Seniorrak: 19 urtetik gora (2004tik aurrera)

18 urtetik beherako partehartzaileek, beraien tutoreeen zihurtagiria aurkeztu beharko dute, berain NAN zenbakia, izen abizenak eta parte hartzen uzten dioten baimena.

4.- IZEN-EMATEA

* Izen-ematea:

- FEDERATUAK 13 EURO
- EZ FEDERATUAK 16 EURO

Izena emateko epea: 2023ko Urtarrillaren 10tik Martxoak 30 arte (barne): soilik internetez egin daiteke. www.kronoak.com webgunean. Izen ematea, gehinezko partaide kopurura iristean itxiko da. Ondoren itxaron zerrenda irekiko da.

Izenematea, lasterketa baino 15 egun lehenago, bertan behera utziz gero, diruaren %100 bueltatuko da. **Ondoren ez da itzultzerik egingo.** Lasterketaren egunean EZ da aukerarik izango izenematea gauzatzeko.

5.- SEGURTASUNA

Antolakuntzak Ardura Zibileko eta Istripuko aseguruak izango ditu. Gurutze Gorriaren laguntza izango dugu.

Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

6.- SEINALEZTAPENA
Ibilbidea eta kilometroak (5 kilometroro) behar bezala seinaleztatuta egongo dira, kartel adierazleekin .

7.- KONTROLAK

- **Lizarpe 5.5km 1ºanoa postua, 1ordu 10m**
- **Meta 1ordu 40m**
  Lasterketa amaitzeko gehienezko denbora 1:40 minutuko izango da. Hortik aurrerako korrikalariak ez dira sailkapenean agertuko.

8.- HORNIDURA
Helmugakoaz gain, 2 horniketa puntu atonduko dira. Postu hauetan freskagarriak eta ura eskainiko zaizkie partehartazaileei.

- 5,5.km Motza / 18.km Luzea (Likido + solido) (Anoa puntu berdina bientzako)
- 9.km Motza / 21.km Luzea (Likido) (Anoa puntu berdina bientzako)

9.- SAILKAPENA
EMF-FVMen araudiaren arabera egingo da kronometraia. Sailkapena argitaratu ondoren, 30 minutu egongo dira edozein erreklamazio egiteko. Denbora pasa eta gero, ofizialak egingo dira sailkapenak.

10.- SARIAK
Gizonezko / Emakumezko nagusiak
1.- Garaikurra.
2.- Garaikurra.
3.- Garaikurra.

11.- DORTSALEN BANAKETA
Dortsalak, txipak eta lasterkariaren poltsa, Herriko Enparantzan banatuko dira lasterketa egunean: 14:15etatik – 15:30era.

12.- INGURUGIROA
Lasterketa mendi inguru zein lur pribatuetatik igaroko da. Ingurunea ahal beste zaintzeko, kontrol-guneetatik kanpo zaborrak ez botatzeko eskatuko zaie partehartzaile guztiei. Helburu horretarako, hornitze guneetatik gertu zaborrontziak ezarriko dira, 25 eta 50 metrora. Oinarrizko arau hau betetzen ez duten korrikalariek, probatik kanpo utziko dira.

13.- ZAINDEGIA ETA DUTXAK
Irteera eta helmuga puntua den Goñati pilotalekuan erropa zaindegia izango da, eta bertan frontoian eta Mendaroko ikastolan, dutxen zerbitzua.

14.- IBILBIDEAREN SEGURTASUNA
Antolakuntzak, proba ordezko ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen

aldaketak egiteko eta, eguraldiak edota beste eragileren batek hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.

15.- LAGUNTZA EZBEHARRETAN
Partehartzaileek betekizun izango dute istsripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.

16.- ERANTZUKIZUNA
Antolakuntzak bere gain hartuko du ibilbidearen barruan gertatzen den edozein istripuen ardura, baina ez korrikalarien istripuaz zabarkeriak eraginda gertatzen bada. Parte-hartzaileen objetu pertsonalei dagokienean ere ez du ardurarik izango, helburu horrekin erropa zaindegi-zerbitzu bat izango baita helmuga bertan.
Parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonei eragindako kalte ororen erantzukizuna.

17.- PARTAIDEN KOPURUA
Gehienezko kopurua: 150

18.- ARAUDIAREN ONARPENA
Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute. Bertan agertzen ez dena EMF-FVM-ren araudia kontuan izanda ikusiko da.

ARGIBIDEAK / TLF: 646119877

EMF-KO MENDI LASTERKETEN ARAUDIA

https://emf.eus/Docs/Reglamento_CxM_EMF_2023_Eus-PA(1).pdf